

ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA

TUBA

2010eko martxoaren 1a

2010eko martxoaren 1ean Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Tuba espezialitatean. Bertan esku hartuko dute, izena eman nahi dutenez gain, espezialitateko irakasle den Luis Manuel Gimeno-k, Pianojole Laguntzailearekin Errepertorio irakasle den José Gallego-k eta Musikeneko Tuba ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten tuba ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gainditu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Lan-egitasmoa

GOIZEZ: (10.30-14.00)

Ateak Zabaltzeko jardunaldiaren aurkezpena Tuba irakaslearen eskutik.

Beroketa orokor teknikoa.

Kamara taldeekin lana (bikoteak, hirukoteak, laukoteak, e.a.)

BAZKARIA: 14.00-15.30 bitartean.

ARRATSALDEZ (15.30-19.00)

Musikeneko ikasleek, José Gallego Pianojole laguntzailearekin batera, ikasturte honetan landutako obrak interpretatuko dituzte.

Tuba irakasleak azalpenak emango ditu datorren ikasturterako sarrera-probari buruz.

GARRANTZIZKOA: Ateak Zabaltzeko jardunaldian izena eman duen ikasle orok modu aktiboan parte hartu ahal izango du ekintza guztietan. Hori dela eta instrumentuarekin eta berorren materialarekin etortzea gomendatzen dizuegu.

Non dago Musikene?

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

Faxa: 00 34 943 316916

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: repelde@musikene.net